

Txotx garaiak, aurreneko pelotakadak gaur

Gaur egingo dute txotx irekiera, iluntzeko 19:30etan Tilosetan, eta Hernaniko Pelota Mundua omenduko dute: esku pelotari 12 ordezkari, palako zortzi eta erremonteko hiru izango dira bertan.

EGUNA eta tokia aldatu, eta gaur egingo dute Hernaniko txotx irekiera, 19:30etan Tilosetan. Tokia bereziki aukeratu dute: Hernaniko Pelota Mundua izango da aurtengo omendua, txotx denboraldi berriaren aurreneko pelotakadak emateko ekitaldian.

Horrela, herriko hiru modalitateak omenduko dituzte, eta esku pelotako 12 ordezkari, palako zortzi, eta erremonteko hiru egongo dira bertan.

Esku pelotatik, honakoak egongo dira bertan: Miguel Ezpeleta eta Martin, Herriarteko aurreneko finala jokatu zutenak; Josu Oiaga eta Felix Zabala, Herriarteko aurreneko txapelan protagonista; Iñaki Lujanbio, eta Iñaki Esnal profesional izandakoak; Unai Alvarez, hiru aldiz munduko azpitxapeldun trinketeen; Aitor Gorrotxategi munduko txapelduna, Ioritz Arrieta eta Paul Ojuel, oraingo

belaunaldiaren ordezkari; Joxe Miguel Azurmendi, delegatu izandakoa; eta Rufino Rekalde, pelota saileko arduraduna.

Pala sailetik, berriz, Garbiñe Tijero arduradunarekin batera, egongo dira Mundialak jokatu izan dituztenak, trinketeen, frontoian zein *One Wallekoan*, Hernani ordezkatzuz: Goiatz Manzisidor, Irati Ugalde, Amaia Irazustabarrena, Maider Huizi, Ariane Arrieta, Amaia Araiztegi eta Patri Espinar.

Eta azkenik, erremontea ordezkatzuko dutenak, izango dira Endika Barrenetxea erremontista, Joxe Mari Barrenetxea eta Xabier Gonzalez.

Guzti horietatik, Aitor Gorrotxategi, Garbiñe Tijero, Amaia Irazustabarrena eta Endika Barrenetxea igoko dira taulara.

Ekitaldiaren aurretik, pelota partiduak izango dira Tilosetan; eta ondoren, *Gu Agustina* dantza ikuskizuna. ||



Plazan beharrean, Tilosetan izango da aurten, txotx irekiera.

HERNANIKO TXOTX IREKIERA

GAUR, Tilosetan

18:00-19:00, Esku pelota partiduak Tilosetan; benjamin eta alebinak.

18:45-19:30, Trikitilariak, herriko kaleetan zehar.

19:30, Txotx irekiera, Tilosetan, Hernaniko Pelota Munduko omenduekin: esku pelota, pala eta erremontea.

20:00-20:30, *Gu Agustina* dantza ikuskizuna. Ereintza dantza taldeak emakumezko raketistek ibilaren inguruan osatutako ikuskizuna.